



Munduketariak

Patxi Zubizarreta · Jokin Mitxelena



erein AUSKA 

MUNDUKETARIAK

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

Liburu honek Eusko Jauriaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren dirulaguntza jaso du.

Liburu hau 31. Euskal Eskola Publikoaren Jaiaren testuinguruan sortu da, publikotasuna, euskalduntzea, aniztasuna eta inklusioa ardatz.

EHIGE Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Konfederazioak eta Ordiziako Euskal Eskola Publikoko komunitateak bultzaturiko lana da.

1. argitalpena: 2024ko martxoan

Maketazioa:

Erein

Azalaren diseinua:

Eukene Lekuona

Azala eta barruko irudiak:

Jokin Mitxelena

© Patxi Zubizarreta

© EREIN. Donostia 2024

ISBN: 978-84-9109-944-4





L. G.: D 187/2024

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

erein@erein.eus

www.erein.eus    

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: itxaropena@itxaropena.net

www.itxaropena.net



Liburu hau inprimatzeko erabili den papera ekologikoa da eta modu jasangarrian kudeatutako basoetatik dator.

PATXI ZUBIZARRETA

MUNDUKETARIAK

Marrazkiak: Jokin Mitxelena



erein **AUSKA** 

patxizubizarreta

idazlea



Izena dut laburra eta abizena luzea. Nire luma ttikia da, baina bere tinta berdearekin istorio handiak idazten ditut, bidaia eta hegaldi luzeak, eta sekretu ezkutuak... Eta gero irrikaz geratzen naiz, marrazkilari lagunen ilustrazio koloretsuak ikusteko, eskoletara joateko eta zuek bertatik bertara ezagutzeko. Halakoetan pentsatzen dut liburua txori bat bezalako delako, baina ehun hego dauzkan txori hegalaria...

Jokinmitxelena

marrazkilaria



Xomorroak marrazten nituen umetan. Zenbat eta nazkagarriagoak, orduan eta interesgarriagoak ikusten nituen zomorroak, zapoak eta kakalardoak. Egun batean esan nuen: «Biologoa izango naiz!». Jakin nuen, ordea, biologoek xomorro gutxi eta oso txikiak ikertzen dituztela. Tamainaz mikroskopikoak. Eta tripa irekitzen dietela. Zomorroak begiko nituen, bai, baina itxura nazkagarriagatik bakarrik! Hobe izango nuen, hortaz, xomorroen kontuarekin jarraitu nahi banuen, lehen bezala haiek marrazten jarraitzea. Hori bai: zomorro batzuek pertsonen itxura daukate!



1

Gelazkina

—Gure ikasgelan mundu osoa kabitzen da —esaten digu andereño Kattalineek—, mundu osoa entzuten da bertan.

Hori esaten du ze gure gelan euskaraz egiten dugu, baina ikasle batzuek *edoz* ere egiten dute, edo arabieraz, edo urduz, edo txineraz, edo ingelesez, edo errumanieraz... Eta orduan, noski, mundu osoa entzuten da.

Nik gaztelaniaz ere badakit, ze amarekin horrela hitz egiten dut, baina Nikaraguako gaztelania, berdina eta desberdina, ze bera handik etorri zen eta ni geroago etorri nintzen. Eta igual jantokian esaten dut bazkaria *deacachimba* egon dela, amak esaten duen bezala, eta gelakideek ez didate ulertzen. Eta orduan azaldu behar diet *deacachimba* hitzak «oso ondo» esan nahi duela, edo «primeran». Eta denak loroen pare hasten dira:

—Deacachimba! Deacachimba!

Batzuetan, amarekin, bideokonferentziak egiten ditugu Nikaraguako familiarekin eta lagunekin. Eta amak euskarazko hitz batzuk esateko eskatzen dit eta haiek harrituta geratzen dira, adibidez «amona mantangorri» izenarekin ze han *catarina* esaten diete. Baina hemengo taloa Nikaraguako tortiten oso antzekoa da, hemengoa artoaz egiten da eta *mayiz* hangoa, horregatik da berdina eta desberdina. Eta Micaela izena ere berdina da euskaraz: Mikaela, baina k letrarekin, eta nik horrelaxe idazten dut, Nikaragua bezala, eta hango lagunei behin eta berriro esaten diet ez dela akatsa, hemen horrela idazten dela.

Gure gelak hegazkin bat ematen du, ze gelako atea paperezko hegazkinekin apaindu dugu. Eta barnean



bizikleta bat sartu dugu, eta bi hegal handi jarri dizkiogu. Ez: gure gela hegazkin bat da, gela hegalaria da gurea, eta horregatik *gelazkina* esaten diogu.

Paperezko kasko bana ere egin dugu, eta paperean igual idatzi dugu China Airlines edo Royal Air Maroc, edo PIA edo NICA, ze *Pakistan International Airlines* edo *Nicaragüense de Aviación* esan nahi dute. Eta komuneko paperaren tutuekin koloretako betaurrekoak prestatu ditugu. Eta orain gure gelakoak pilotu, azafata edo bidaiari gara eta mundu osora joaten gara. Flop-flop-flop.

Gure gelan lur-globo biribil bat daukagu, baina zorian ere marraztu dugu mundua. «Mapamundia» esaten dio andereño Kattalinek, ze bertan ere mundu osoa kabitzen da. Eta kontua da gure gelan hegaldiak egiten hasi garela, batez ere gure familien jatorrietaraino bidaiatzeko, gure jatorriak ezagutzeko edo gure gelakide batzuei gure gurasoen herrialdeak erakusteko.

Atzo, adibidez, Marion izan zen pilotua, Tarom Rumanian konpainiakoa. Baina Tristane egin zuen azafatarena, eta batez ere gerrikoak lotzen erakutsi zigun. Baina flotagailua eta oxigenoa non dauden ere esan zigun. Eta turbulentziak errepideko zuloak bezalakoak

direla, eta hegazkinak orduan zotina daukala: tap-rap-bum! Baina niri orduantxe komunerako gogoia etorri ziztzaidan eta komunera joan nintzen eta han Harmony topatu nuen.

—Harmony! Mikaela! —hots egin ziguten lagunek berehala. Eta ahotsarekin «bruum, bruum» egiten hasi ziren, eta «barramm, barramm» ere bai, hau da, hegazkina abiatzekoa zen seinale.

—Azkar, aineratu behar dugu! —esan zuen andereño Kattalinek.

—Orain ezin zarete komunean egon, orain gerrikoa lotu behar da —oihukatu zigun Tristanek.



Orduan Harmony eta biok elkarri begira geratu ginen. Eta nik esan nuen:

—Lasai, segi zuek. Aireportua zaintzen geratuko gara gu. —Eta *Alasetenta!* esango nuen, baina inork ez zidan ulertuko.

—Bai, segi zuek. Beste batean joango gara gu —segitu zuen Harmonyk. Izututa zegoen, baina bera ez da zuri jartzen beldurtzen denean, ni bezala.

—Bertigoa daukazue, ala? —entzun nion Hodeiri. Baina guk ez genuen hitz erditxorik ere esan, ze igual ez da bertigoa, igual da...